Pío Baroja, nombrado Hijo Adoptivo de Madrid a título póstumo

E. P.

MADRID. El escritor donostiarra Pío Baroja (1872-1956) fue nombrado ayer por unanimidad de todos los grupos con representación en el Pleno municipal, Hijo Adoptivo de Madrid a título póstumo. La delegada del área de Cultura, Andrea Levy, anunció que los madrileños contarán, el próximo 28 de diciembre, con un «regalo», y será un libro con textos de Baroja sobre Madrid en la editorial de la familia.

El nombramiento de Hijo Adoptivo partió de la solicitud presentada en el registro municipal por «un grupo de barojianos». Entre las firmas que acompañan la petición figuran Soledad Puértolas, Andrés Trapiello, Jon Juaristi, Sergio del Molino, Luis Antonio de Villena, Félix de Azúa y el director de la Real Academia Española, Santiago Muñoz Machado.

Los firmantes argumentan que Baroja debe ser nombrado Hijo Adoptivo de esta ciudad, criterio que comparte el área de Cultura, Turismo y Deporte, «por su vinculación con la ciudad en la que pasó la mayor parte de su vida y en la que escribió muchas de sus novelas que ya son clásicos de la literatura española».

La red de bibliotecas municipales de Madrid, una de las cuales, situada en Arganzuela, recibe el nombre de Pío Baroja, también será escenario de decenas de actos en homenaje del escritor vasco.

'G7 udalekuak', istorioaren nondik norakoak irakurlearen esku uzten dituen liburu bitxia

Nerea Loiola Pikazaren lanarekin, 10 urtetik gorakoei zuzendutako Eskapu Liburuak saila abiarazi du Ereinek

N. AZURMENDI

DONOSTIA. Nerea Loiola Pikazaren (Deba, 1985) '7G udalekuak' lanarekin, sail berri bat jarri du abian Erein argitaletxeak: Eskapu Liburuak. Aurrerantzean, 10 urtetik aurrerako irakurleei zuzendutako liburu 'diferenteak' bilduko dituzte bertan.

Uxue Razquin editoreak aurkezpenean azaldu zuenez, bi liburu motaren nahasketa da '7G udalekua', 'aukeratu zure amaiera' estilokoen eta 'escape book' deiturikoen ezaugarriak baititu. Hurrengoak ere bide horretatik joango dira.

Aurrenekoetan, alegia, irakurleari ematen zaio istorioaren norabidea finkatuko duten erabakiak hartzeko aukera. 'Escape book'-etan –'escape room'-etan bezala–, zenbait enigma eta igarkizun asmatu behar ditu irakurleak aurrera egin ahal izateko. «Nik dakidala, lehen aldia da biak nahasten direla», esan zuen Razquinek, honelako liburu baten diseinua eta maketa egitearen zailtasunak nabarmenduz.

Jolasak ondo funtzionatu dezan, baina, irakurlearen parte-hartze zuzena eskatzen duten liburuen oinarrian ezinbestekoa da istorio on bat, irakurketa mota horretara ondo egokitua. Haur eta gazteentzat zein helduentzat idatzi izan duen Nerea Loiolak hartu du bere gain ardura hori, protagonista «udaleku teknologiko esklusibo» batean kokatuz.

Nerea Loiola Pikazak idatzi duen liburuak 116 orrialde ditu (15 euro). E.A.

«Taxian sartzen den unetik, oso arraro egiten zaio dena. Lagun berriak egingo ditu, biziko ditu une bereziak, eta halako batean erabakiko du handik ihes egin behar duela», azaldu zuen, maitasun istorio bat ere badagoela aurreratuz. Mota horretako liburuak umetatik izan omen ditu oso gogoko idazleak, baina zaletasunak ez dio arindu ariketaren zailtasuna: «Egitura oso konplexua da. Eskema esko egin behar izan ditut bide posible guztiak zabalik uzteko, eta dena lotzen ari nintzela sortu zen konponente berri bat, 'escape book'-aren aukera. Izan ere, istorioan aurrera egiteko irakurleak batzuetan erabaki bat hartu beharko du, eta beste batzuetan beharko du kode bat».

Irakurlearen lana errazteko, pistak eta soluzioak ez dizkiote oso ezkutuan gorde. Oraingo liburuak 17, 27, 37 eta 47ren istorioak ekarri dituen bezala, beste pertsonaia eta istorio batzuk daude zain, bilduma osatzen joateko.